



ARAUTEGIA

ARETO FUTBOLA 2024

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Futbol Federazioarekin lankidetzan, Euskadiko XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu 2024ko maiatzaren 11an, Basauriko Artundugada Udal Kiroldegian.

Hona hemen arautegia:

1. **JOKATZEKO MODUA**

Hirukoan.

Mailak: Infantilak: 2010 eta 2011ean jaiotako neska-mutilak.

2. **TALDEEN OSAERA**

Taldeak honela osatuko dira: gehienez 15 eta gutxienez 7 jokalaria, ordezkari bat eta entrenatzailea.

Talde batek gutxienez 8 jokalaria aurkezten ez baldin baditu, partida berdina jokatu da. Parte hartzeko baldintzak betetzen dituen taldeko ordezkariak, instalazioan dagoen Jarduera Fisiko eta Kiroleko Zuzendaritzako ordezkariak emango dion fitxa bete beharko du. Adostasuna emanez gero eta partida baliozkotzat ematen bada, horren emaitza behin betikoa izango da. Adostasuna lortzen ez bada, eta araua bete ez duen taldea irabazlea izan bada, azken emaitza 2-0ekoa izango da, arauak adierazten duen parte-hartzaileen kopurua aurkeztu duen taldearen alde. Partidaren emaitza araua bete duen taldearen aldekoa bada, hura errespetatuko da.

Partida guztietan taldeko kideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du partidan parte hartu.

Kirolariren bat Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako ordezkariak duen parte-hartzaileen zerrendan ez badago, kirolariak parte hartu ahal izango du, taldeko



4. AZKEN SAILKAPENEAN BERDINKETA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

→ BERDINKETA BIKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

1. Talde irabazleak beraien artean jokaturiko partidaren lortutako emaitza.
2. Talde irabazleak beraien artean jaurtitako penaltien emaitzak
3. Partida denboran zehar sarturiko golen aldea.
4. Partida guzietan sarturiko penaltien aldea.
5. Partidaren lortutako aldeko golak guztira
6. Aldeko penaltiak guztira
7. Desberdintze partida

→ BERDINKETA HIRUKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

1. Berdintutako taldeen arteko golen aldea
2. Berdintutako taldeen arteko penaltien aldea
3. Berdintutako taldeen artean gol gehien sartu dituenak
4. Berdintutako taldeen artean penalti gehien sartu dituenak
5. Partida denboran zehar sarturiko gol guzietan aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz
6. Penalti guzietan aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz
7. Kanporaturiko taldea kontuan edukiaz gol gehien sartu dituenak
8. Kanporaturiko taldea kontuan edukiz penalti gehien sartu dituenak
9. Zozketa

5.- BALOIA

Baloia ASTORE etxekoa izango da, PRO SALA modelokoa.

6.- SAKEAK



ALBOKO SAKEA

Baloia alboko marretatik ateratzen denean, jokalariai baloia marraren gainean jarriko du ostikada baten bidez zelairatuz. Arerioa 5 metroko tartea utzi beharko du.

KORNERRA :

Kornerra talde erasotzaileko jokalariai batek aterako du, baloia zelaiaren ertzean jarrita, ostikada baten bidez zelairatuko du. Arerioa 5 metroko tartea utzi beharko du.

ATEKO SAKEA:

Ateko sakea atezainak egingo du eta jokoan eskuz egindako jaurtiketaren bidez jarriko du, baina ondoko marra pasa duen lekuaren aldeko area erditik.

Baloia penalti areatik ateratzen den unean ulertuko da baloia jokoan dagoela eta ateko sakea zuzen egin dela. Baloia jokoan jarri arte aurkako jokalariai aipatu penalti areatik kanpo egon beharko dute.

Zelaiaren beste aldera pasatzea zilegia izango da . Ateko sakea eginez, zuzenean gola sartu ezker ez da baliagarria izango.

7.- GOLA

Ez da baliozkoa izango alboko saketik zuzenean lortutako gola. Baliagarria izango da kornurretik lortutakoa.

Edozein jokalarik sar dezake gola kantxako edozein tokitatik, lehen adierazitako tokietatik salbu.

8.-BESTE BATZUK

Jokalariai atezaina barne, 4 “ dituzte edozein sake edo jaurtiketa egiteko.

Atezainak behin bakarrik jaso ahal izango du bere taldeko jokalariaiek nahita edo nahigabe eginiko lagapenak, eta ezingo du baloia berriz ukitu aurkari batek baloia jokatu edo ukitu arte edota beste zelaira pasa ez bada.

Taldekide batek atezainari baloia zelaiaren edozein aldetik, nahita bidalitakoan honek eskuarekin jokatzen badu, falta izango da. (falta egin duen tokitik jaurtiketa



ez zuzenaren bidez egingo da, hau atezainaren eremuaren barruan izan ezkerro jaurtiketa ez zuena marraren gainetik izango da).

9.- SARIAK

Ondorengo sariak emango dira: lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutako taldeei garaikur bana emango zaie.

10.- EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharririk sortu ezkerro nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

11.- AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a. 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa
- d. AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 16koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e. EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 25ekoa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI edizioko lehiaketako epaile bakarria izendatzen duena.
- f. Futboleko Euskadiko Federazioaren araudiak dioena.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.



EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XLI JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI

